

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakaria Pirinioetako Lan Elkartearen 30. osoko bilkuraren buru izango da ostegun honetan, Iruñean

Osoko bilkuran Andorra PLEaren partzuergoan eskubide osoko kide izatea onartuko da

Martes, 13 de noviembre de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina [Pirinioetako Lan Elkartearen](#) (PLE) 30. osoko bilkuraren buru izango da ostegun honetan, azaroak 15. Nafarroako Musikaren Hirian (Iruñea) egingo da eta mugaz gaindiko lankidetzarakundeko ehun bat ordezkari parte hartuko dute.

Bilkuran aurreikusita dago Lankidetzako Andorrako Erakundearen Atxikimenduaren Administrazio arteko Hitzarmena onartzea Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoan; horri esker, Andorrako Printzerria eskubide osoko kide bihurtuko da PLEaren partzuergoan. Mugaz haraindiko erakundearen finkatzean urrats berri bat dakarren aitortza juridikoa da.

Jardunaldian bi saio egingo dira batera. Alde batetik, lehendakarien arteko urteko bilkura egingo da, eta PLEa osatzen duten zortzi lurraldeetako ordezkariak izango dira bertan. Espainiatik, Nafarroa eta Aragoiko lehendakari Yolanda Barcina eta Luisa Fernanda Rudi, hurrenez hurren, bertan egotea espero da; Kataluniako Generalitat-eko Gobernuaren idazkari Germà Gordó; eta Euskadiko Kanpo Ekintzako idazkari nagusi Guillermo Echenique. Frantziatik, Akitaniako Eskualdeko Kontseiluko lehendakariorde Frantxua Maïtia joango da; Languedoc-Roussillon eskualdeko kontseilari Marcel Mateu; eta Midi-Pyrénées eskualdeko kontseiluko lehendakariorde Marc Carballido. Andorraren izenean, bilkuran parte hartuko du Kanpo Gaietarako ministro eta Mugaz haraindiko Lankidetzako Andorrako Erakundearen lehendakari Gilbert Saboya Sunyé-k.

Bestalde, lan-saio bat egingo da eta bertan PLEa egituratzen den lan-talde eta batzordeek erakundea existitzen den 30 urte hauen balantzea egingo dute, eta epe labur nahiz ertaineko ibilbide-orri bat idatziko dute, Bertan helburuak finkatuko dira eta haiek lortzeko ekintzak. 'Lankidetzaren antolatze' izeneko saioan 75 pertsonak parte hartuko dute.

Jardunaldia osoko bilkura batekin amaituko da; bertan guztiek parte



Pirinioetako Lan Elkartearen logotipoa.

hartuko dute eta aztertutako gaien berri emango da. 2012ko PLEaren sariak banatuko dira, gainera, osoko bilkura horretan. Gazteria eta aktore dinamikoen arloetan mugaz haraindiko lankidetzaren aldeko proiektuak saritzen dira

Pirinioetako Lan Elkartea 1983an sortu zen Pirinioen aldeari Europako beste muga batzuetan dauden antzeko mugaz haraindiko lankidetzaren egitura bat emateko. Haren helburu nagusia Pirinioen garapenari laguntza ematea da bertako erronkak kontuan hartuz, bere aberastasunak zainduz eta lankidetzaren transnazionala sustatuz.